

Denboraren makina
Igandea
sokratua da

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Thesi
Inauteriak
Euskal Herrian,
mozorroen
babesean

ARGIA

erdiko kainera


kultura eta aisia

Charles Simic

AEBetan gaur egungo poeta saritu eta estimatuenetakoa da Charles Simic. Ekialdeko Europako tradizioa AEBetako bere garaikideen ildoarekin uztartzen asmatu du. Pulitzer saria eskuratu zuen 1990ean eta berriki Wallace Stevens saria jaso du, ingelesez idatzitako poesiak duen sari garrantzitsuenetarikoa.

BEÑAT SARASOLA

ACADEMY OF AMERICAN POETS





Ekialdeko poeta amerikarra

2008ko urtarrilaren 27a

ARGIA
30

WALLACE STEVENS SARIA AEBetako poesia sari garrantzitsuenetakoa da. Ameriketako poeten akademiak (Academy of American Poets) antolatzen du urtero eta bizirik den eta ingelesez idazten duen poeta bati ematen zaio. 1994an antolatu zen lehenengo aldiz eta irabazleak 100.000 dolar (67.000 euro baino gehiago) eskuratzen ditu, mundu osoko poe-

siazko ordainsari handienetakoa. Irabazleen artean egungo AEBetako poeta handienetakoak daude: John Ashbery, Gerald Stern eta Michael Palmer adibidez. 2007ko saria Charles Simicek jaso du.

Belgraden (gaur egungo Serbian) jaio zen 1938. urtean eta bere gaztaroa Jugoslavian igaro izanagatik, 1954. urtean Chica-

Pastorala

Zelai batera iritsi nintzen
non belarra isiltasuna
eta loreak
hitzak ziren.

Ikusi nuen loreak
haragizko eta odolezko zirena
eta dardar egin eta haizeari
beldur dietela laban bati bezain.

Halaxe eseri nintzen *egia* hitzaren
eta *alegia* hitzaren artean
ene katilu hutsa
eta koilara atera nituen.

Galdetu nien *amodioari* buruz
isiltasunean
gaua erori bitartean
nire izenaz deitzen ninduela ikusi nuen.

Ene esku ahurretan tu egin nuen
izarrak harrapatzeko bertan
ipurtargiak bezala
eta niganako bidea argitzeko.

Sardexka

Gauza arraro hau zuzenean infernutik
herrestatuko zen.
Txori baten hanka dirudi
kanibal baten lepo inguruan jarria.

Eskutan hartzen duzunean,
berarekin haragi zati bat sastakatzen duzunean,
txori osoa imajinatzea posible da:
bere burua zure ukabila da
handia, soila, moko gabea eta itsua.

Hiltegiko xomorroak

Arratsaldeak, beren hanka odoleztatuak pasa ziren
nire eskola-liburuaren orrien gainetik.
Begiak itxita, oraindik ikus ditzaket
nire kaleko zuhaitzak
agur petral bat emanez udarari,

eta norbait, gure leiho pean, oroituz
behi zahar eta inozoekin zeinak zalantza egiten duten
halako batean beren susmo txarra areagotuz
labana euren gan honoratzen denean hain justu.

ITZULTZAILEA: BEÑAT SARASOLA

gora aldatu zen bere familiarekin batera. New Yorkeko Unibertsitatean ikasi eta gero, poesia idazteari ekin zion, eta poesiaren inguruko hausnarketa teorikora ere lerratu zen. Gaur egun New Hampshireko Unibertsitateko irakasle emeritua da eta poesiaren gaineko zenbait saiakera publikatu ditu. Gainera, *Paris Review* aldizkari ospetsuko editorea da eta poesia itzulpen ugari publikatu ditu.

Simicen poesia

Baina ezer baino lehen, egungo poeta estimatuenetakoa da Charles Simic. Ingelesez idazten du, bere ama-hizkuntza ez den hizkuntza batean alegia, eta bere hizkuntza poetikoarekin duen erdi-zeharkako erlazio horri esker, hizkuntzaren mugetaraino ailegatzea lortu du, zenbait kritikoren aburuz. Honetaz gain, sarritan eguneroko berba eta esaerak testuinguruz aldatuta ematen ditu, objektu eta egoera arruntenak arrotz bihurtuz. Horixe ikus dezakegu sardexka

Zentzumenen eta hizkuntzaren
arteko bereizketa garbia egiten
du Charles Simicek, bere ustez
hizkuntza ez delako errealitatera
iristeko gai zentzumenen
gertutasun berarekin

Tradizio sinbolista eta
surrealistan kokatzen da Simicen
poesia, baina bere garaikideak
diren AEBetako poetez bestela
Ekialdeko Europako herentzia
jaso du

bati buruzko poeman –ikusiko goiko koadroko *Sardexka*–, adibidez. Bestetik, ezagutza Simicen poesiako gai errepikaria da, orobat, eta hala, ezagutza eta kontzientziaren arteko erlazioa lantzen du. Zentzumenen eta hizkuntzaren arteko bereizketa garbia egiten du, bere ustez, hizkuntza ez delako errealitatera iristeko gai zentzumenen gertutasun berarekin. Horregatik, gertaerak, objektuak, zentzumenak eta hauen operazioak usu bere poesian azaltzen diren elementuak dira. Ildo honetan, sarritan esan izan da Simicen poesiak dimentsio filosofikoa duena; baina aipatu behar da, halaber, oinarri filosofiko hau hizkera eta poesiamolde xehe eta soilaren bidez osatzen duela.

Bere poemetan nekez aurkitzen dira arrazonamendu konplexu eta ele hanpatuak. *Pastorala* poema izan daiteke dimentsio filosofiko horren adierazle behinenetakoa.

Tradizio sinbolista eta surrealistan kokatzen da bere poesia, garaikide dituen beste poeta estatubatuarren antzera –New Yorkeko eskolako batzuk, esate baterako–; baina poetok ez bezala, Ekialdeko

Mundua ez da amaitzen (zatiak)

Nire ama ke beltzeko txirikorda bat zen.

Maiolatua, suzko hirietan barna eraman ninduen.

Zerua ume baten jolasleku zabal eta haizetsua zen.

Gu bezalakoak ziren beste asko ezagutu genituen. Kez egindako mahukako berokiak jantzen saiatzen ziren.

Zeru-goia entzumen gor ttipiz beteta zegoen izarrez beharrean.

Escaligero heriotzaz zurbiltzen da berroen aurrean. Tycho Brahe, astronomo famatua, azeri kaiolatu baten aurrean zorabiatzen da. Mediziko Maria liluratu egiten da arrosa bat ikustean, koadro batean izanda ere. Nire arbasoak, bitartean, aza jaten ari dira. Eltzeari eragiten diote ez dagoen zerri-hanka baten bila. Zerua urdina dago. Erresño-lak Errenazimenduko soneto baten erara kantatzen du, eta segituan norbait ohera doa hagineta minez.

Napoleonon azkeneko soldadua naiz. Ia berrehun urte igaro dira, eta oraindik Moskuko erretiran nago. Errepidea urki zuriz inguratua dago eta lokatza belauetaraino ailegatzeko zait. Emakume begibakarrak oilasko bat saldu nahi dit, eta ez daramat arroparik ere jantzita.

Alemaniarrek bide batetik doaz; ni beste batetik. Errusiarrek oraindik beste bide batetik egiten dute aurrera eta eskuarekin agurtzen dute. Zeremonia-sable bat daukat. Metro eta erdi luzeko ene ilea mozteko erabiltzen dut.

Oro aurreikus daiteke. Dena aurreikusia izan da honezkerok. Patua ezin da ekidin. Ezta patata egosi hau ere. Sardexka hau. Ogi ilun zati hau. Gogoeta hau ere. . .

Nire amonak, espaloia erraztatzen duenak, badaki. Jainkorik ez dela dio, arazki dakusan begi bat baino ez hanhemenka. Auzoak lanpetuegi dabilta telebista ikusten sorgintzat hartu eta erretzeko.

Zakur bati Rimbaud deitzen dio eta besteari Hölderlin. Biak kale-zakurrak dira. "Esploratu gabeko biziak ez du merezi bizitzea" da bere esaera gogokoena. Bere emazteak Delacroixen *Liberty* erdi-biluziaren antza dauka. Cowboy

botak daramatza, pozoitsuak diruditen perretxikoak hartzen ditu basoan. Gau honetan kandela handiak piztu eta ardoa edango dute. Gero, atea irekiko dute txakurrak sartu eta hondarrak jan ditzaten mahai azpian. "*iEntrez mes enfants!*" oihukatuko die berak gauaren erdian, indartsu gur eginez.

Artearentzat soilik bizi den ikusle ideala, eskuak bizkarrean gurutzaturik. Oihal zuri bat *Txuri* izenburu egokia duena, bere aurrean. Goizeko hamaikak dira zehazki probintziako museoan. Zaindari uniformatuaren tripa hotsak entzun litezke; ilargi argitan urkatutako baten aurpegia du.

Objektu Hegalari Ezezagunek inguru honetako jende ugari hartu dute buelta bat emateko. Ez zenuke sinetsiko igandetan lepo egon ohi diren eliza zuri eta polit hauen aurrean.

"Karratu borobila ez da existitzen", diotsa irakasleak ikasle motzari. Bere ama bart abdukzitu zuten hain justu. Gezurra badirudi ere, bazterrean eserita dago bortxaz barre egiten bere buruari. Zerua zabal eta urdina da.

"Hain txikiak dira ezen euren belarri propioetan lo egin baitezakete" diotsa laurogei urteko bizki batek besteari.

Idazten ari zen nobelako pertsonaiak nahasi zituen. Ahaztu egin zuen nor ziren eta zer egiten zuten. Emakume zendu bat berragertzen zen afalorduan. Etxez etxeko saltzaile bat trailer zakar batetik agertu zen arropa txinatarretan jantzita. Hiltzailea elektrokutatua bide zen egunean, Rita batentzat loreak erosten zituen, zeina azkenean betaurretako zein txirikorda lodiko hamar urteko neska bat zen. . . Horrela zihoan.

Ez zuen inoiz ezer egin niretzat, haatik. Geroz eta zahar eta marmartiago egin nintzen, normala denez, berak beti "hil" eta "ezdeus" gisa deskribatzen zuen herri narras batean.

ITZULTZAILEA: BEÑAT SARASOLA

Europako herentzia jaso zuen gaztaroan, eta horrek halako arrasto berezia utzi du bere testuetan. Nekazal munduaren –ikus *Hiltegiako xomorroak*– eta herri tradizioetik datozen literatur formen –ipuinak eta memoriaren literatura, besteak beste– eragina sumatzen ahal da, bereziki Vasko Popa poeta serbiarrarena.

Itzulpenak

Euskaraz ez dugu bere poesia irakurtzerik. Frantsesez, ezer gutxi *Book of Gods and Devils* (1990) liburuaz landa: *Le Livre des dieux et des démons* (Broché, 1995). Gaztelaniaz, liburu gutxi batzuk eskuratzen ahal dira,

Charles Simic,
Robert Pinsky
poetarekin batera
hitzaldi batean.



ACADEMY OF AMERICAN POETS

nagusiki, *Dismantling The Silence* (1971), *Desmontando el silencio* (4 Estaciones, 2004) izenburuarekin argitaratua, eta *The World Doesn't End: Prose Poems* (1990), *El mundo no se acaba y otros poemas* (DVD ed. 1999). Azkeneko hori bere liburu ezagunena da, besteak beste poesiako Pulitzer saria eman ziotelako horri esker –goiko koadroan zati batzuk itzulita daude–. Sari hau dela-eta zera esan zuen elkarriketa batean: "Pulitzerra irabazi izanak harritu egin ninduen, jakina. Prosazko poesia iruzurra da, eta urte hartan saria eman zioten. Literatur munduko jende ugari saminduta dago oraindik sari honengatik". ■